



## ALDEZ AURREKO KONTSULTA 2019RAKO ZERGA NEURRIEN FORU ARAU AURREPROIEKTUARI BURUZ.

29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskinaren 9. artikulua xedatutakoaren arabera (29/2017 Foru Dekretua, maiatzaren 23koa, zeinaren bidez onesten baitira xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikako jarraibideak), eta herritarrek araugintzako xedapenak egiteko prozeduran izan behar duten parte hartzea hobetzearren, aldez aurreko kontsulta bat gauzatu nahi da, goiburuan adierazitako aurreproiektua egiteko, jakitearren zer iritzi duten herritarrek eta egitekoa den arauak eragin ahal dien erakunde ordezkagarritasun handienekoen honako hauei buruz:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) Onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) Arauaren helburuak,
- d) Aukera ordezkoak, araugintzakoak edo araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, honako kontsulta hau planteatzen da, beren iritzia eskatzeko zenbait zerga figuratan arau esparru berria ezarri nahi duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta antolakunde ordezkatzailerei.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egokia baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, abuztuaren 10era arte, [aurrezkontsultak@araba.eus](mailto:aurrezkontsultak@araba.eus) helbide elektronikoko postontziaren bidez.

<b>AURREKARIAK</b>	Arabako Lurralde Historikoan indarrean dauden zerga arloko foru arauak.
--------------------	---



<b>KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</b>	Beherago aipatzen diren helburuetan sakontzeko behar diren arau aldaketak egin nahi dira.
<b>ONESTEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA</b>	Aldaketa egokiak ez egitekotan, eten egingo litzateke 2014ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin egindako zerga eraberrikuntzaren bidez hasitako prozesua.
<b>HELBURUAK</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>1.Enpresa jarduera suspertzen laguntzea, eta, horretarako, enpresa ehuna eta hemengo enpresen lehiakortasuna sendotzea.</li><li>2. Aberastasunaren eta enpleguaren sorrera sustatzea, enpresen inbertsioa erakartzeko neurrien bidez.</li><li>3.Ekintzailletza jarduera sustatzea, eta, horretarako, enpresa proiektu berriak ezartzea eta prestakuntza handiko langileak erakartzea, Arabako garapen ekonomikoa lortzeko konpromisoa har dezaten.</li><li>4.Zerga saihestea, zerga oinarrien higadura eta enpresa etekinen lekualdatze artifiziosua prebenitzeko marko fiskaletik eratorritako betebeharrak betetzea. Nazioarteko foroetan sustatu da marko hori, ELGAN eta Europar Batasunean, besteak beste.</li></ol>



	<p>5.Sistema fiskalak behar beste diru biltzen duela bermatuko duen zergapetze maila lortzea, beharizan publikoek eragindako konpromisoak bete ahal izateko, tributazioa zerga sistemaren printzipio orokorren arabera sustatuz, batez ere gizarte gastuei ekarpenak egitea ekonomia gaitasunaren arabera.</p> <p>6. Aurrera egitea hizkuntzaren erabilera berrikustean, aldatutako testu arauemaileetan genero ikuspegia txertatzeko, hizkuntzaren erabilera ez-sexista egin dadin, emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko eta genero desberdintasuna desagerrarazteko ekarpen gisa.</p> <p>7. Arabako zerga sistema Bizkaikoarekin eta Gipuzkoakoarekin bateratzea lortzea.</p>
<p><b>EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUGINTZAZKOAK ETA ARAUGINTZAZ BESTEKOAK)</b></p>	<p>Uste da aukeratutako arautze alternatiba, araugintza xedapen bakarra erabiliz, zerga figura bakoitza bereiz aldatu ordez, egokiena dela.</p>